

UME BEREZIA ANDOAINEN

XVI.mendean ume bat jaio zen. Ume hori oso berezia zen, horregatik Berezi deitu zioten. Bere ama sorgin oso ahaltsua zen eta bere aita aztia zen.

Bere aita igel, tigre, lehoi... edozein animalia bihur zitekeen. Urte bat zeukanean bazekien hitz egiten hiru hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez.

Hamaika urte egin zituenean hilezkorra zela konturatu zen. Aita eta amak aztien eskolara bidaltzen erabaki zuten. Berezik ez zuen joan nahi, hor ezin zituelako lagunak egin, baina Berezi gaixoak hamabost urte egin zituen arte han gelditu behar izan zuen.

Eskola bukatzerakoan, bere botereak erabilia, XXI.mendera joan zen eta Andoain izeneko herri txiki batera joan zen.

Bera aztia zen eta aberatsa, baina Andoainera etorri zenean dena zoragarria irudituz zitzaien. Ume guztiek lagunak zituzten eta eskola normalak ziren, ez zuen bi aldiz pentsatu eta hurrengo egunean eskolara joan zen.

Errekreo orduan berehala egin zituen lagunak: Jon, Iker, Ainara eta Maider.

Eskola bukatzerakoan hain pozik zegoen, herria ikustera joan zela:

- Ze polita den eliza!
- Ze polita den plaza!-esaten zuen Berezik.
- -Leku gehiago ikustera joango naiz. Berezi oso alai zegoen, baina pentsatu zuen:
- Non pasatuko dut gaua?

Bitartean, XXII.mendean, bere aita eta ama oso kezkatuta zeuden, orduan pantaila magikoan begiratzea erabaki zuten:

- Oraintxe joango gara-esan zuen amak.
- Ez, itxaron, hemen eguna da baina han gaua, eta zarata asko egiten dugu transportatzean.
- Ongi da, bihar goizean joango gara.

Berezik bazekien non pasa gaua. Bere botereekin etxetxo bat egin zuen, eta Hansel eta Gretelen ipuina asko gustatzen zitzaionez, txokolatezko etxea egin zuen.

Hurrengo egunean aita eta ama txokolatezko etxera joan ziren. Gainera larunbata zen eta Berezik ez zuen eskolara joan beharrik. Aita eta ama azaldu zirenean izugarrizko sustoa eman zioten, lotan zegoen eta. Orduan oihu egin zuen amak:

- Berezi!! Zertan zabilta?
- Eee ee ama, aita kaixo. Esan zuen ahots fin, fin batekin.
- Zergatik joan zara etxetik guri ezer esan gabe?

Berezik ez zekien zer esan. Oso urduri zegoen, baina egia esan zuen. Hemen lagunak zeuzkala, beti jolasean ari zela eta beraien herria baino askoz politagoa zela. Bere amari ez zion axolarik eta bere mundura itzuli ziren.

Berezi triste zegoen. Urte bat gehiago gelditu zen bere munduan eta urtea oso luzea egin zitzaion.

Oso aspertuta zegoen, ez zuen jolasten, ez zuen jateko gogorik eta egun guztia logelan pasatzen zuen. Bere aita eta amari, Berezi horrela ikusteak pena handia ematen zien, beraz gurasoek erabaki bat hartu zuten.

- Berezi, joan zaitez Andoainera, nahi baduzu, baina gu zurekin joango gara.

Berezi oso pozik jarri zen eta bere txokolatezko etxera bueltatu zen. Baina arazo bat zegoen, txokolatezko etxean ez ziren denak kabitzen. Gurasoek beraien botereak erabilia txokolatezko etxe dotore handi bat eraiki zuten.

Orain ikusten baduzue Berezi izeneko gizon bat seiehun urte edo horrela izango ditu. Bere gurasoak ez dut uste ikusiko dituzuenik, orain ura, haizea eta belarrak baitira.